




ZURE ETXEBIZITZA
GURE KONPROMISOA
TU VIVIENDA
NUESTRO COMPROMISO

Herritarren partehartze-prozesua 2013-2016ko Etxebizitzaren Gidaplanaren
prestaketan


Herritarren arteko 2. inkestaren emaitzak ETXEBIZITZA ESKURATZEA ETA HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK

Etxebizitzak eskuratzeari eta hutsik dauden etxebizitzei buruzko 2.374 inkesta jaso ditugu


Inkestak erantzun dituztenek uste dute altuegiak direla eskatzen diren gehieneko diru-sarrerak etxebizitza tasatuak alokatzeko eta erosteko, eta erregimen orokorreko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak eskuratzeko; eta egokiak iruditzen zaizkie erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko exijitutakoak.




Exijitutako gutxieneko diru-sarrerak egokitzat jotzen dira edozein motako babes ofizialeko etxebizitzak alokatu eta erosteko.




Ez dago adostasun garbirik babes ofizialeko etxebizitzaren prezioa edo errenta Etxebideko eskatzaileen ahalmenarekin bat datorren ala ez esateko orduan, baina % 55k uste dute ez direla egokiak




Herritar gehienek (% 72k) uste dute erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitza erosteko orduan etxebizitza beharrik handiena duten kolektiboak positiboki barematu behar direla.




Herritar gehienek (% 73k) uste dute ez dela eraginkorra babes ofizialeko etxebizitzaren inguruko iruzurraren kontrako Eusko Jaurlaritzak daukan ikuskapen-sistema.



Herritar gehienei beharrezkoa iruditzen zaie etxebizitza motak bizikidetzaren beharretara egokitzea, hala nola leku gehiago behar duten familia ugarietara (% 83); gazteen eta zaharren arteko bizikidetzarako (% 78), eta zaintza partekaturako (% 72).



Herritar gehienek (% 73k) uste dute Euskadin hutsik dauden etxebizitzak zergapetu egin beharko liratekeela.



Gehienek (% 87) uste dute hutsik dauden etxebizitzak babestutako alokairuan eskaintzeak etxebizitza eskuratzeko arazoei aurre egiten lagunduko lukeela. Era berean, % 92ri ondo iruditzen zaio hutsik dauden etxebizitzak alokatzeko laguntza-programak indartzea Eusko Jaurlaritzak.

